



EBAZPENA, 2025eko otsailaren 19koa, Arrantza eta Akuikulturako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko 2024-2025 denboraldirako angularen arrantza profesionalerako kanpainako laugarren aldia aldatzekoa.

Kontseiluaren 2024ko urtarrilaren 10eko 2024/257 (EB) Erregelamenduak 2024, 2025 eta 2026rako Batasuneko uretan aplika daitezkeen arrain populazio jakin batzuen arrantza aukerak finkatzen ditu, eta, Batasuneko arrantza-ontzien kasuan, Batasunekoak ez diren ur jakin batzuetakoak, eta 2023/194 (EB) Erregelamendua aldatzen du. Erregelamendu horrek 13.4 artikuluan xedatzen du angularen arrantza jarduerak baimendu ahal izango direla gehienez hogeita hamar eguneko aldi jarraitu edo ez jarraituan.

Euskal Autonomia Erkidegoan angularen arrantza profesionala arautu eta angula-arrantzale profesionalen erregistroa sortu zuen ekainaren 18ko 77/2024 Dekretuak 11. artikuluan xedatzen du angularen arrantza-denboraldia bera, denboraldi horren aldaketak edo etendurak arlo horretako Zuzendaritza eskudunaren ebazpen baten bidez ezarriko direla, Kantauri itsasoko ertzeko beste autonomia-erkidego batzuekin koordinatuta, beharrezko euskarri tekniko eta zientifikoarekin, eta inola ere ez du gaindituko Batasuneko araudian aurreikusitakoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2024-2025 denboraldirako angularen arrantza profesionalerako lizentzia-eskabideak aurkezteko epea ezarri, eta arrantzaren zenbait arlo arautzen dituen Arrantza eta Akuikulturako zuzendariaren 2024ko irailaren 24ko Ebazpenak 6. artikuluan xedatzen du 2024-2025eko kanpainako angularen arrantza-denboraldiak aldi hauek izango dituela: 2024ko azaroaren 29tik abenduaren 5era (2024ko azaroaren 27ko Ebazpen bidez aldatu zen, 2024ko abenduaren 12tik 18rako aldia ezarriz); 2024ko abenduaren 26tik 2025eko urtarrilaren 3ra; 2025eko urtarrilaren 26tik otsailaren 1era (2025eko urtarrilaren 30eko Ebazpen bidez aldatu zen, 2025eko urtarrilaren 26tik otsailaren 3rako aldia ezarriz); eta 2025eko otsailaren 24tik martxoaren 2ra. Halaber, ezartzen da arrantza arloko eskumena duen zuzendaritzako titularraren ebazpen baten bidez, eta baldintza meteorologikoen arabera, 48 ordu lehenago aldatu ahal izango direla kanpainaren datak.

Angularen arrantza profesionalaren kanpainaren hirugarren aldia bi egunez luzatu zenez, laugarren aldia bi egunez murriztu behar da, Batasuneko araudiak angula arrantzatzeko ezartzen duen hogeita hamar eguneko gehieneko muga betetzeko. Eguraldi iragarpenak kontuan hartuta, egokitzat jotzen da laugarren arrantza aldiaren hasiera bi egunez atzeratzea, otsailaren 26ra arte.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 11ko 438/2024 Dekretuan ezarritakoaren arabera, Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzari arrantzarekin lotutako egitekoak dagozkie.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra. Euskal Autonomia Erkidegoko 2024-2025 denboraldirako angularen arrantza profesionalerako kanpainako laugarren aldia aldatzea, eta horrela, ezarrita zegoen aldiaren ordeztu:

2025eko otsailaren 24tik martxoaren 2ra (7 egun).

Aldi hau hartuko du:

2025eko otsailaren 26tik martxoaren 2ra (5 egun).

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA. Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke arrantza arloko eskumena duen sailburuordetzako titularrari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA. Ebazpen honek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 19a.

Arrantza eta Akuikulturako zuzendaria,
IXONE SOROA GUENAGA.